



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2019-01-17

BILERA ZENBAKIA:55

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Leire, Mainer, Aiora, Jone, Itziar.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

2. 2019KO ANTOLAKUNTZA

5. BESTEAK

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

Azken akta onartu da.

2. 2019KO ANTOLAKUNTZA

2019a Ongizate Lantaldeak hausnarketarako urte bezala hartuko du. Urte honetako helburua lantaldearen egitura eta funtzioen inguruan hausnartzea izango da. Orain arte ekintza asko burutu ditu lantaldeak, eta, lan asko suposatu du kideentzat. Orain hausnartu, dauden beharrak jaso, dauden baliabideak baliatu, eta, horren arabera ekintzak planteatzea erabaki da.

Hausnarketak hainbat puntu izango ditu hizpide:

- Zein behar daude herrian.
- Zein gai jorratu behar ditu ongizate lantaldeak.
- Zer eskaini dezake Ongizate Lantaldeak.
- Koordinatzaile lana izan behar du herriko eragileen artean.
- Ze baliabide ditu lantaldeak.
- Zein ardura hartuko ditu beregain lantaldeak.

Guztion herria dinamika ere kontutan hartu behar da. Hau izango da motorra, eta, Ongizate Lantaldea ari horren baitan arituko da.



Badira ekintza batzuk Ongizate Lantaldeak oraingoz mantenduko dituenak:

- Tipi tapa eta gimnasia.
- Elikagai bankua.
- Harrera eguna.
- Hanburgesa jana.
- Memoria tailerra. (oraingoz mantenduko da, baina ikusten da parte hartzea ez dela oso handia. Horren arabera erabakiko da aurrerantzean mantendu behar den edo ez)

Martxoak 8. eta azaroaren 25a emakume taldeak antolatuko du.

Hausnarketa prozesuan egonik ere, lantaldean ekintzaren bat planteatzen bada, eta, honi aurre egiteko baliabide nahikoa ikusten bada, ez da guztiz baztertzen.

5. BESTEAK

Beste gai batzuk ere aipatu dira bileran:

Gimnasioa: Udaleko lehen pisuan gimnasioa egiteko aukera planteatu Honen inguruan hainbat gai aipatu dira:

- Zer jarri pentsatzearen garrantzia. (Zenbat makina, pilateseko pilotak, etab)
- Majori berritu egingo dute, bertako materiala berrerabiltzeko moduan ote den galdetu daiteke, agian zerbait baliagarri izan daiteke eta.

Bileren efizientzia: Bilerak ideiak zehaztu eta lanak banatzeko erabiltzea proposatu da, eta, denbora tarte zehatz batean burutzea. (ordu betez). Hemendik aurrera 19:00etan beharrean 18:30etan izango dira.

Guztion herria: Guztion herritik erabaki da ondasuna lantzea. Aurreko bileran hainbat proposamen mahai gaineratu ziren, oso interesgarriak; bideo dokumental bat egitearena besteak beste.

Aldizkaria: Aldizkarian Ongizate Lantaldeak egin beharreko lanaren inguruan ere hausnartu da. Erabaki da Ongizatearekin lotutako gaiak lantzea lantaldearen esku geratuko dela (kideen artean banatuz). Elkarrizketei dagokionez, ongizate lantaldearen esparrua soilik ez dela baloratu da, bi proposamen egin dira:

- Lantalde ezberdinen artean tartekatzea. Aldizkari bakoitzean lantalde batek egitea elkarrizketa.
- Kulturak beregain hartzea.

Genero indarkeriaren inguruko esku orriak: Hurrengo aldizkariarekin dauden



esku orriak banatzea erabaki da. Ez da aldizkari bakoitzeko bat egongo, ez direlako esku orri berriak egingo, baina daudenak zabaltzea ahalbideratuko da.

Horrez gain esku orria PDFan web orrira igotzea ere interesgarria izango litzakeela baloratu da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
HURRENGO BILERA		
2019ko Urtarrilaren 16an.		
Jorratuko diren gaiak:		
<ul style="list-style-type: none">• Aktaren onarpena.• 2019rako plangintza.• Genero indarkeriaren inguruko diru laguntza.• Besteak:		